

**KALE ERASOAK.** Udalbatzarrak eta alkateak eraso gaitzetsi dute

# Alegiako postetxeari eraso diote, eta suak kalte handiak eragin ditu

Posta bulegoaren aurkako ekintzan ez zen zauriturik izan



JUAN HERRERO / EFE

Alegiako postetxeko langileetako bat, telefonoz hitz egiten, erasoaren ostean.

Agentziak | DONOSTIA

Atzo goizean lau kaputxadunek su eman zioten Alegiako postetxeari, eta 20.000 eurotik gorako kalteak eragin. Bertako langile batek esan zuenez, konpondu artean bulegoa itxita egongo da. Zauriturik ez zen izan.

Goizeko 08:55ean, irekitzeko ordua baino lehentxeago, lau gazte kaputxadun San Joan kaleko posta bulegora sartu ziren. Bertako bi langileak kanpora bidali, gasolina bota eta su eman zioten egoitzari. «Makilak zeuzkaten, eta gasolinaz edota likido sukoiz betetako bidoi bat; hori bulegoan bota, su eman eta arin-arin irten ziren. Dena oso azkar gertatu zen», azaldu zuen atzo langileetako batek. Haren arabera, paketeak egiteko materiala Tolosatik jasotzeko zain

zeuden, eta «zorionez» erasoaren ostean iritsi zen karga.

Sutearen ondorioz bulegoan kalte handiak izan ziren. Besteak beste, salmahaia, argindar sistema, atea eta postarien ondasunak erre ziren. Ertzainen eta suhiltzaileen artean itzali zuten sua; suhiltzaileek bukatu zuten ertzainek hasitako lana.

## Gaitzespen hitzak

Alegiako Udalbatzarrak eraso gaitzetsi zuen, EAJ eta EAren botoekin. Batasuneko zinegotzia abstenitu egin zen.

Frantzisko Larrañaga Alegiako alkate jeltzaleak ere eraso gaitzetsi zuen, eta «zentzugarria» iritzi zion indarkeriari: «Herria eraiki nahian gabiltza, ez suntsitu nahian». Haren hitzetan, «herri honetako jende gehienak ez du uste hori arra-

zoituta dagoenik. Kale borroka da, eta guk ez bairik gabe salatu dugu». Ez zuen ulertzen «herriarrei zerbitzua ematen zien postetxea» erretzeko arrazoia.

Maria San Gil Gipuzkoako PPko presidenteak ere eraso gaitzetsi zuen: «Ez dira konturatzen indarkeriaz ez dutela ezer lortuko, eta euskal gizartea aspertuta dagoela euren atentatu, mehatxu eta xantaiekin». Bide-nabar, Carmelo Barrio EAEko PPko idazkari nagusiak erasoak «Batasunaren estrategiaren barruan» kokatu zituen.

## Leherketa Santutxun

Bestalde, etxean eginiko lehergailu batek egin zuen eztanda atzo BBKren kutxa automatiko batean, Bilboko Santutxu auzoan. Goizeko 01:10ean bi gasolina bidoi leherrarazi zituzten.

**DESOBEDIENTZIA.** Uztaritze, Garazi eta Maulen



BOB EDME

Polizia, Marianneren irudia eskutan, Uztaritzeko Herriko Etxean.

## Errepublikaren sinboloa den Marianne-ren hiru soingain ebatsi dituzte 'Demo'-ek

Eneko Bidegain | BAIONA

*Demo*-etako 21 kide Uztaritzeko Herriko Etxean sartu ziren atzo eguerdian, kantuz, eta handik laster atera. Udaltxeko langileak ez baziren ohartu ere, Marianneren soingain zizelkatua ebatsi zuten. Mariannek Frantziako Errepublika sinbolizatzen du, eta haren soingain zizelkatua udaletxe guztietan da.

Uztaritzeko gain, Donibane Garazi eta Mauleko herriko etxeetako soingainak ere ebatsi zituzten atzo goizean. Eta EGUNKARIAK *Demo*-en iturrietatik jakin ahal izan zuenez, «hastapen bat baizik ez da», eta ondoko aste eta hilabeteetan saltsa nahasiko dute istorio horrekin.

Mariannek demokrazia sinbolizatzen duela eta, Ipar Euskal Herriaren kasuan dagoen «demokrazia falta» sa-

latu nahi izan zuten *Demo*-ek. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko «auzapezen gehiengoak» euskal departamendua aldarrikatzen duela, eta aldarrikapen horri ez zaiola bairkorki erantzuten azaldu zuten. Gisa berean, euskararen ofizialtasunari, laborantza ganberari eta presoan hurbilketari dagokienez, gehiengoak eskatzen duenari uko egiten zaiola salatu zuten.

Uztaritzeko Herriko Etxeko langileak ez zekien Marianneren soingaina bazutenik ere. Bernard Auroy auzapezak ironiaz hartu zuen ekintza. «Zoragarria da. Mariannez maiteminduak dira.» Auzapezaren ustez «hobe da irri egitea». Hala ere, Ipar Euskal Herrian demokrazia badagoela eta aldarrikatzeko bertz bide batzuk erabil daitezkeela esan zuen, erantzun gisa.



Ayuntamiento de  
**Sopelana** -ko Udala

### IRAGARKIA

Fibra optika biderako EARTH TECH enpresa (Tycom Networks Iberica) egiten obra dela eta, jakinarazten da BI-634 errepidean autoen trafikoan aldaketa batzuk egingo direla (Loiola Ander Deuna k.), Loroño kalearen eta Akilino Arriola kalean bidegurutzeen bitarteko zatian, datorren urtarrilaren 6an (igandea) 21:00etan hasita urtarrilaren 11ko (ostirala) 17:00 arte eta urtarrilaren 13an 21:00etan hasita urtarrilaren 18ko (ostirala) 17:00 arte. Aldaketak honako hauek izango dira:

- BI-634 errepidea (Loiola Ander Deuna k.), trafikoaren norabide bakarra: Berango-Getxora.

- BI-634 errepidea (Loiola Ander Deuna k.), Barrika-Urduliz-Plentziara norabidea debekatuta. Sahiesbidea Akilino Arriola kalea

Sahiesbideak behar bezala adierazita egongo dira kartelak jarrita.

Sopelana, 2002ko urtarrilaren 3a  
ALKATEA

### ANUNCIO

Con motivo de la realización de obras de canalización de fibra óptica por parte de la Empresa EARTH TECH (Tycom Networks Iberica), se comunica que se van a realizar unas modificaciones en el tráfico rodado en la Carretera BI-634, (C/Loiola Ander Deuna), en el tramo comprendido entre los cruces con Calle Loroño y Calle Akilino Arriola, desde las 21,00 horas del próximo Domingo día 6 de enero hasta las 17,00 horas del Viernes, día 11 de Enero, y desde las 21,00 horas del día 13 de Enero hasta las 17,00 horas del Viernes, día 18 de Enero, consistentes en:

- Carretera BI-634 (C/Loiola Ander Deuna), sentido único de circulación dirección Berango-Getxo.

- Carretera BI-634 (C/Loiola Ander Deuna), sentido Barrika-Urduliz-Plentzia, circulación prohibida, efectuándose el desvío por la Calle Akilino Arriola.

Los desvíos estarán convenientemente señalizados con carteles indicadores.

Sopelana, 3 de Enero de 2002  
EL ALCALDE

## EHNELUR KOOPERATIBA

Paratzaile (aparejador)  
bat behar dugu.

Interesatuak bidali ahalik  
eta azkarren  
Curriculum Vitae-a  
honako helbideetara:

-Nafarroa Etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
Tel: 943-653590

-Enparan, 2-1  
20730 Azpeitia  
Tel: 943-813928

Arabako  
Foru Aldundia  
Ogasun, Finantza eta  
Aurrekontu Saila



Diputación  
Foral de Alava  
Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

## ARABAKO FORU-OGASUNA OHAR GARRANTZITSUA

Arabako Foru-Ogasunaren zergadun guztiei gogoarazten die, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, aitortpen-likidazio, sartze-agiri zein informazio-adierazpen **GUZTIAK EUROETAN BAKARRIK** beteko direla.

Euroetan eginiko inprimaki berriak Arabako Foru Ogasunaren bulegoetan zein estanko guztietan interesdunen eskura daude.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILAREN TITULARRA DEN FORU DIPUTATUA.  
Juan Antonio Zárate Pérez de Arillucea

MS 00-191